

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

5.SAIOA

DATA: 2022-11-30
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none">- Herritarrak: 12 parte hartzaile- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia) eta Iraitz Lazkano (alkatea)- Goiener: Oier Etxeberria- Emun: Ihabar Arriaran.

AURKEZPENA – KOOPERATIBA ETA ELKARTEA

Goienerreko Oier Etxebarriak orain arte azaldutakoaren errebasoa egin du. Komunitate energetiko bat zer den, merkatu elektrikoa nolakoa den, fakturaren azalpen laburra, energia berriztagarri ezberdinak...

Ondoren EH.ko beste esperientzia batzuk azaldu ditu. Otxandio, Lea Artibai, Hernani, Bergara eta Elorrioko komunitate energetikoenak.

Galderak egiteko tarte zabaldu da zalantzak zituzten horientzat.

**Dokumentu honekin batera erabilitako aurkezpena.*

LANTALDEETAKO ARIKETA

Komunitatea eta komunikazioa lantaldea	Energia-proiektuen lantaldea	Lantalde juridiko-administratiboa
Komunitatearen zaintzaz eta harreman-sareak zabaltzeaz arduratuko den lantaldea izango da. Bertan zehaztuko dira komunitatearen funtzionamendua , harreman-sareak etengabe zabaltzen joateko bideak eta komunikazio-estrategia .	Proiektu desberdinak proposatu eta horien bideragarritasuna aztertzea izango da lantalde honen egiteko nagusia. Bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, urgentzia eta eragin dezakeen ingurumen-inpaktua , zein inpaktu soziala izango dira, gutxienez, kontuan izan beharreko alderdiak. Ez dago metodologia bakar bat inpaktumota guztiak neurtzen dituen, kasuan kasu egokiena bilatu beharko da, baina, zehazki, inpaktu soziala aurreikusteko, baliagarria izango zaigu balioen markoa eraikita izatea.	Lantalde hau kooperatibaren eraketan landu beharreko alderdiez arduratuko da. Kooperatibaren estatutuak landu beharko dira eta bertan jasoko diren organo, bazkide-mota eta finantzazio-iturrien inguruko gogoetak egin. Horrek guztiak definituko du komunitatearen gobernantza-eredua bera. Komunitatearen bideragarritasun ekonomikoa ere landu beharko du, denboran zehar irau dezan.

Lantaldeetan banatu gara ondoren. Etxeko lan batzuk zehaztea zen helburua:

Energia lantaldea:

Ekintzak:

- Bideragarritasun ariketak egiteko tresna (excell) bat aurkeztu du Oierrek. Bertan proiektu bakoitzarekin hartuko diren irizpideak kontuan hartuta emaitza ezberdinak ateratzen ditu.
- Hurrengo saiorako frontoiko proiektuaren bideragarritasun ariketa ezberdinak ekarriko dituzte eginda.
- Beste energia berriztagarri batzuei buruz ere jardun dute, eolikoa, hidraulikoa... baina baztertu egin dira hasiera batean.

Komunikazio-komunitate lantaldea:

Ekintzak:

- Lantalde bakoitzerako whatsapp talde ezberdinak sortu dira. Eta talde osorako orokor bat.
- Kooperatibaren aurkezpen formala herrira begira urtarrilean egingo da.
- Izen orokor bat jarriko da hasiera batean estatutuetan
 - o Elgetako komunitate energetikoa adibidez
- Eskolarekin izena eta logoa lantzeko "lehiaketa" bat egingo da. Helburuak:
 - o Pedagogia lana egitea
 - o Proiektua zabaltzea, guraso elkartearekin egon...
- Osteguna, abenduak 1, Ikastetxeklik.en bileran parte hartuko du Iraitzek eta bertan egingo du proposamena.

Lantalde juridiko administratiboa:

Ekintzak:

- Kooperatibaren estatutu proposamena egingo da hurrengo bilerarako. Taldean proposamena nahiko garbi daukate:
 - o Bazkide motak eta parte hartzea
 - o Egitura juridikoa
 - o Kontseilu errektoreko partaideak
 - o ...
- Elgetako enpresa batekin egongo dira bazkide laguntzaile bezala sartzeko proposamena egiteko
 - o Aste honetan bilera egingo dute.
- Horrekin batera kooperatibaren bideragarritasun edo negozio planaren inguruan hitz egiten aritu dira.

ITXIERA

Hurrengo bileretako planifikazioa:

Faseak	Eginbeharrekoak	Iraila	2022/10/5	2022/10/19	2022/11/2	2022/11/16	2022/11/30	2022/12/14
Hasiera ematea	Prozesua abiatu							
	Formazioak ahalduentzeko							
	EBK eta prozesua + espektatibak							
Prestatzea	Energia faktura - merkatu elektrikoa - pobrezia energ + xedea - helburua							
	Kooperatiba edo elkarte + talde lanketak abiatzea							
	Energia berriztagarriak - autokontsumoa ind. edo kolektiboa + estatutuak							
	EH.ko beste esperientzia batzuk + talde lanketak							
	Eratze prozesua abiatu							
Elkarrekin sortzea	Lantaldeetako lanketak + etxeko lanak							
	...							

Hurrengo saioa abenduaren 14ean, 18:30etan izango da. Talde juridikoak estatutu proposamena ekarri eta landuko da.